



## PRENTSARAKO OHARRA

18/09/20

### **Garraio Foru Diputatu barriak, “gardentasunean”, “iraunkortasunean” eta “lurraldearen antolamenduan” oinarritu dau bere Sailaren nondik norakoa**

Joan dan garagarrilean karguaz jabetu ostean, Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatu barria jagokon batzordearen aurrera etorri da lehen aldiz gaur goizean. Beste gai batzuen artean, Aldundiko arduradunak bere Saitetik aurrera eroatea aurreikusten dituan lehentasunezko proiektuak eta jarduketak azaldu ditu, Talde Mistoak eta Talde Popularrak eskatuta.

Taldean aurrean, Gómez Viarrek “PSE-EE / EAJ-PNV Gobernu Akordioaren barruan aurreikusitako proiektu estrategikoei jarraipena emoteko eta bukatzeko” konpromisoa erakutsi dau. Proiektu horreek, zehaztu dauenez, hiru ardatz estrategikoren barruan dagoz: gardentasuna, eraginkortasuna eta gertutasuna; mobikortasun iraunkorra; eta eskualdeen garapena eta lurraldearen kohesinoa.

Beste gauza batzuen artean, Garraio Foru Diputatuak balioan jarri ditu partaidetzan oinarritutako prozesuak eta herritarrak hartu emonak izateko bideak. Modu berean, bere Sailak iraunkortasunagaz daukan konpromisoa adierazo dau; holan, Gómez Viarrek baieztu egin dau beste hiru autobus hibrido sartuko dirala Bizkaibuseko flotan 2019rako, 2018rako aurreikusita dagozan hamaikaz aparte.

“Gure konpromisoa, Bizkaian garraio publikoaren erabilerea bultzatzen jarraitzea da, gizartearen aldetik arduratsua, ekonomiaren ikuspegitik bideragarria, teknologiari jagokonez aurreratua dan, ingurumenagaz konpromisoa daukan eta segurua eta kalidadekoa izateaz aparte erabiltzaileari begiratzen deusan eredu oinarrituta”, adierazo dau.

Euren txandatan, oposizinoko taldeetako ordezkariak alderdi bakotxaren lehentasunak eta ardurak jakinarazo deutseez Foru Diputaturi. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak Bizkaibusen markesinak aztertzea eta, beharrezkoa bada, ordezkatzeari eskatu dau. Jesús Isasi Talde Popularreko batzordekideak, bere taldeak gaur aztertuko dauela Diputatuak azaldu dauena adierazo dau.

Podemos Bizkaia taldeko Nuria Atienzaren eretxiz, Sailak “ez dau ibilgailu elektrikoek aldeko apustua egiten”. “Gure eretxiz, mobikortasun iraunkorra pixka bat herren geratzen ari da”, adierazo dau batzordekideak. Zigor Isuskiza EH Bilduko ordezkariarentzat, barriz, gai garrantzitsuena eta bere taldean ardura handiena sortzen dauena tarifen integrazinoarena da. Horrez gain, “sindikatu guztiak izan beharreko hartu emonean gehiago sakontzen ahalegintzea” eskatu deutso Foru Diputaturi.

Gobernua eusten daben taldeen aldetik, Ekain Rico bozeroale sozialistak, partaidetzan oinarrituta Lurraldeko Plan Partzialagaz Saitetik aurrera eroan dan prozesua jarri dau balioan: “Informazioan oinarritutako partaidetza aktibo horrek esfortzu garrantzitsu

eskatu dau”. Bozeroale sozialistak “munduko suerte guztia” opatu deutso Gómez Viarri, “zure suertea Bizkaiko biztanle guztientzat mesedegarria izango da eta”.

Celia Gómez jeltzaleak, bere aldetik, Sailak ezarri dituan helburuak lortzeko orduan bere taldearen lankidetzeari eukiko dauela helduarazo gura izan deutso Diputatu barriari: “beti egin dogu behar gure Lurraldean kalidadeko garraio publiko sistemaren alde eta Bizkaiko lurralde kohesinoa hobetzeko, eta bide horretan gure esfortzua eta laguntasuna eukiko dozuz beti ondoan”.

## MOBIKORTASUN URRIA DAUKIEN ERABILTZAILERAK

Eguneko gai zerrendako bigarren puntuan, Podemos Bizkaia taldeak “arrapalen edo igogailuen sarbide sistemen akatsak dirala eta Bizkaibusa hartu ezinik geratzen diran eta mobikortasun urria daukien erabiltzaileentzako konpentsazio neurrien” ganean itaundu deutso Garraio Foru Diputatuari.

Horri jagokonez, Gómez Viarrek esan dau bere Saila Irisgarritasunerako Jarraibide batean dabilela beharrez “Zerbitzuko Eskuliburuaren jagokon atala handituko dauena, arrapalen funtzionamentu egokirako eta ahalik eta matxura gutxi egoteko helburua lortzeko”. Jarraibideak, gidaritzako eta ikuskaritzako beharginentzako prestakuntza plana jasoteaz aparte, enpresa kudeatzaileei mekanismo horretan proba sistematikoak egitea eskatzen deutse, prebentziozko helburuakaz.

Daborduko hartuta dagozan neurrien artean, autobusetan jarriko diran arrapala independente biak azpimarratu behar dira. Bat automatikoa izango da, eta hotsezko eta argizko seinalea eukiko dau funtzionetan dagon bitartean, eta gelditzeko txirrina kanpoan eta barruan. Eta bestea, eskuz eragindakoa, gehigarria, automatikotik guztiz modu independentean funtzionauko dauena.

## AUDITORETZA EMB EMAKIDADUNARI

Beste alde batetik, Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, orain zazpi hilebete Vicente Reyes aurreko Foru Diputatuak esan ebanez egiten ari zan EMB emakidadunaren auditoretzaren ganean galdetu deutso Foru Diputatuari. Gómez Viarrek azaldu dauenez, “zerbitzuak eskaintzen dauen arretea guztiz egokia da”, eta gaur egun emakidadunaren diru-sarrerak eta gastuak doitzeko azterketa ari da egiten. Erantzun horren aurrean, Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak “ahoa zabalik” geratu dala esan dau, eta “bere betebeharrak ez betetea” leporatu deutso Sailari.

## A3339 LINEA: GURUTZETA/ BARAKALDO/AREETA

Laugarren esku-hartzean, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak adierazo dauenez, aurtongo udan erakutsi dauen arrakastea ikusi eta gero, datozen uda garaietan be A3339 lineak zerbitzua emongo dau. Horrez gain, Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak aitatu dituan arazoei erantzunez, Gómez Viarrek esan dau arazo horreek modu desegokian aparkauta egozan ibilgailu partikularrek eragindakoak zirala. Horretarako, “gelditzeko lekua handitu eta edukiontzi batzuk lekuz aldatu” dira.

NOTA DE PRENSA

20/09/18

## **El nuevo Diputado Foral de Transportes fundamenta el rumbo de su Departamento en la “transparencia”, la “sostenibilidad” y la “ordenación del territorio”**

Tras tomar posesión el pasado mes de julio, el nuevo Diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Ángel Gómez Viar, ha comparecido esta mañana por primera vez ante la comisión correspondiente. Entre otros asuntos, el responsable foral ha abordado, a petición del Grupo Popular y Grupo Mixto, los proyectos y actuaciones prioritarias que piensa impulsar desde su Departamento en lo que queda de legislatura.

Gómez Viar se ha comprometido ante los grupos a “dar continuidad y culminar los proyectos estratégicos contemplados en el marco del Acuerdo de Gobierno PSE-EE / EAJ-PNV”. Estos proyectos, tal y como ha detallado, responderán a tres ejes estratégicos: transparencia, eficiencia y cercanía; movilidad sostenible; y desarrollo comarcal y cohesión del territorio.

Entre otras cosas, el Diputado Foral de Transportes ha puesto en valor los procesos participativos y los distintos canales de comunicación con la ciudadanía. De igual manera, ha expresado el compromiso de su Departamento con la sostenibilidad; en este sentido Gómez Viar ha confirmado la incorporación de tres nuevos autobuses híbridos a la flota de Bizkaibus para 2019, además de los once ya previstos para 2018.

“Nuestro compromiso es el de seguir impulsando el uso del transporte público en Bizkaia sobre un modelo socialmente responsable, económicamente viable, tecnológicamente avanzado, comprometido con el medio ambiente y seguro, de calidad y orientado al usuario”, ha manifestado.

En su turno de intervención los y las distintas representantes de los grupos de la oposición le han transmitido al Diputado Foral las prioridades y las preocupaciones de sus partidos. El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha solicitado la revisión y sustitución si procediera de las marquesinas de Bizkaibus. El apoderado del Grupo Popular, Jesús Isasi, ha manifestado que su grupo estudiara lo hoy expuesto por el Diputado.

Por otra parte, en opinión de la representante de Podemos Bizkaia, Nuria Atienza, el Departamento “no está apostando por los vehículos eléctricos”. “La movilidad sostenible se queda un poco coja a nuestro parecer”, ha afirmado la apoderada. Sin embargo, para el representante de EH Bildu, Zigor Isuskiza, la cuestión más importante y que más preocupa a su grupo es la integración tarifaria. Asimismo ha solicitado al Diputado Foral que “trate de profundizar en la relación con todos los sindicatos”.

Por parte de los grupos que sustentan el gobierno, el portavoz socialista Ekain Rico ha puesto en valor el proceso participativo llevado a cabo desde el Departamento con el Plan Territorial Parcial: “Esa participación activa a partir de la información ha sido un esfuerzo importante”. El portavoz socialista le ha deseado a Gómez Viar “toda la suerte del mundo”, ya que “su suerte será beneficiosa para los ciudadanos de Bizkaia”.

La nacionalista Celia Gómez, por su parte, ha querido trasladar al Diputado General la colaboración de su grupo en la consecución de los objetivos fijados por el Departamento: “Siempre hemos trabajado por un sistema de transporte público de calidad en nuestro Territorio y por la mejora de la cohesión territorial en Bizkaia y en este camino puede contar con nuestro esfuerzo y colaboración”.

#### USUARIOS Y USUARIAS DE MOVILIDAD REDUCIDA

En un segundo punto del orden del día, el grupo Podemos Bizkaia ha interpelado al Diputado Foral de Transportes sobre “las medidas compensatorias a los y las usuarias con movilidad reducida que no puedan acceder a un Bizkaibus por fallo de los sistemas de acceso de las rampas o elevadores”.

En este sentido Gómez Viar ha asegurado que su Departamento se encuentra trabajando en una Instrucción de Accesibilidad “que ampliará el apartado correspondiente del Manual de Servicio con el objetivo final de que contribuya al buen funcionamiento y a la máxima reducción de las averías en rampa”. La Instrucción, además de contemplar un plan formativo para el personal de conducción e inspección, exige a las empresas gestoras que la realización sistemática de pruebas en dichos mecanismos con fines preventivos.

Entre las medidas ya adoptadas destacan las dos rampas independientes que incorporarán los autobuses. Una automática, con señal acústica y luminosa mientras funcione y timbre de parada interno y externo, y otra, manual adicional, totalmente independiente de la automática.

#### AUDITORIA A LA CONCESIONARIA EMB

Por otra parte, la apoderada de Podemos Bizkaia Nuria Atienza, ha preguntado al Diputado Foral sobre los resultados de la auditoria a la concesionaria EMB que hace siete meses el anterior Diputado Foral, Vicente Reyes, afirmó que se estaba llevando a cabo. Gómez Viar ha manifestado que “el servicio está perfectamente atendido” y que actualmente se está llevando a cabo un análisis del ajuste de ingresos y gastos de la concesionaria. Ante esta respuesta, la apoderada de Podemos Bizkaia ha asegurado haberse quedado “ojiplática” y ha acusado al Departamento de una “vejación de funciones”.

#### LÍNEA A3339: GURUTZETA/CRUCES/BARAKALDO/ LA ARENA

En una cuarta intervención, del Diputado Foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, ha confirmado, dado su éxito este verano, la incorporación de la línea A3339 a las próximas épocas estivales. Asimismo, en respuesta a los problemas señalados por la apoderada de Podemos Bizkaia Nuria Atienza, Gómez Viar ha señalado que los mismos nacían de la presencia de vehículos particulares indebidamente estacionados. Para ello se ha procedido a “aumentar el espacio de parada y cambiar algunos contenedores de sitio”.